

CARITASEN KANPAINA **«ERDU – TE INVITO»**

2021eko ABENDUAREN 19a

ABENDU ALDIKO 4. **DOMEKEA (C)**

Liturgia lagungarriak

Atarikoak:

- ✿ Lagungarri honeek liturgiarako talde eragilearen esku iztea komeni da.
- ✿ Lagungarriak aurrerapenez prestatu doguz. Ez ahaztu, kanpaina egiten danean Jainkoaren herriaren otoitzean sartzea egoki dan gertaerak izan daitezakela.
- ✿ Ezinbestekoa da liturgia lagungarriekin batera bialtzen doguzan materialak irakurtea kanpainaren senaz jabetzeko.

SARRERAKO OHARRA

Anai-arrebok: Gabonak atarian doguz. Abendu aldiko azken domeka honetan, Mari itxaropenaren Amabirjinari begiratzeko esaten jaku beste behin be. Egon gaitezcan prest, Mariaren antzera, Jaunari harrera egiteko eta Jaunaren bideetatik joteko. Bera da gure osotasuna.

Caritasek Gabonetako kanpaina aurkezten deusku: «Gabon honeetan aurkitu dabe lekua ostatuan. Etxea lortzeko eskubidea». Bizileku egokia lortzea, ez da pribilegioa, inongo baldintzaren menpe ez dagoan giza eskubidea baino. Bizilekua, bizitzeko eta sozializatzeko ezinbesteko eremua da, gizarteratzea dakarren eragile nagusia. Bizilekurik ez eukitean, ezinezkoa da gizarte eskubideak gauzatzea eta pertsona lez osotasuna jadestea. Eremu fisiko hori izatea, etxea izatea baino gehiago da, garatzeko, segurtasuna, nasaitasuna sentitzeko etxea izatea da eta hori izan ezker beste eskubide batzuk be eskuratu daitezke, esate baterako, parte hartzea, osasuna, gizarte babesa, e.a... Horregaitik, etxea lortzea, itxaropen-zeinua eta poza da bizileku barrik, etxe barik egon dan makina bat familia eta pertsonarentzat.

Abestuz ekingo deusagu ospakizunari.

CAMPAÑA DE CÁRITAS **«ERDU – TE INVITO»**

19 de DICIEMBRE de 2021

DOMINGO 4 **DE ADVIENTO (C)**

Subsidios litúrgicos

Notas previas:

- ✿ Conviene pasar estos subsidios por las manos del equipo animador de la liturgia.
- ✿ Los materiales se han preparado con antelación. Tened en cuenta que en la fecha de la Campaña puede haber acontecimientos que haya que incluir en la Oración Universal.
- ✿ La lectura de los materiales que acompañan a los subsidios litúrgicos es necesaria para comprender el sentido de la Campaña.

MONICIÓN INICIAL

Hermanas y hermanos: Estamos a las puertas de la Navidad. Hemos llegado al último domingo de Adviento, y se nos invita a fijarnos en la figura de María, la Virgen de la esperanza por la que nos viene el Salvador. Estemos dispuestos, como ella, a acoger al Señor y seguir sus caminos. Él es la plenitud.

Cáritas nos invita en su campaña navideña con el lema: «Esta navidad encontraron sitio en la posada». El acceso a una vivienda digna y adecuada no es un privilegio, sino un derecho humano que no está supeditado a ninguna condición. La vivienda es un espacio vital imprescindible para la socialización y un factor de inclusión social de primer orden. Su carencia paraliza el ejercicio de los derechos sociales e impide la realización de la persona. Disponer de un espacio físico supone más que tener una casa, es tener un hogar donde desarrollarse, sentir seguridad, tranquilidad y que permite tener acceso a otros derechos como la participación, la salud, la protección social etc.... Por ello, el acceso a la vivienda es signo de esperanza y alegría para muchas familias y personas que han estado sin vivienda, sin hogar.

Nos unimos en el canto para iniciar la celebración.





SARRERAKO ABESTIA

ABADEAREN AGURRA

Gu salbatzera datorren Jauna, zuekin.

KOROIAREN ZEINUA ETA DAMU OTOITZA

Laugarren kandlea biztean, Ama Mariagan pentsa-tuko dogu. Ez dau sekula inork berak besteko irrika eta maitasunez itxaron. Maitasunean eta zuzentasu-nean prestatu gura dogu geure burua. Lagun hurko-aganako eta justiziaganako kristinau maitasuna ezin dira banandu. Horreekaz, gizarte gizatiarrago eta gizatiartzaileagoa egin daikegu danon artean.

Laugarren kandlea biztu eta, ondoren, esan:

1. Ilunpetan bizi diranen artean argi egitera za-tozan munduaren Argia:
Erruki, Jauna.
2. Zure herria egia eta zuzentasunaren bideeta-tik zuzentzera zatozan gizadiaren gida:
Kristo, erruki.
3. Gure makaltasunaren zauriak osatzera zato-zan Bizi-iturria:
Erruki, Jauna.

OHARRA 1. IRAKURGAIA (MIK 5, 1-4A)

Lehenengo irakurgaiari, Mikeas profeteak, gertatu baino gizaldi batzuk aurretik, Mesiasen jaiotza iragarten dau. Belen izeneko herri txiki eta ezezagunean jaioko da. Herri guztiak batuko ditu, bakea emongo deutse. Izan be, Jaungoikoaren indarra gauza txikietan, apaletan agertzen da.

OHARRA 2. IRAKURGAIA (HEB 10, 5-10)

Bigarren irakurgaiari, Hebrearrei idatzitako gutunaren egilearen arabera, Kristo Abade Na-gusi bakar eta egiazkoa da jarraitu behar dogun eredia, kristinau izan gura badogu. Haren antzera, danok esan beharko geunke: "Hemen nozu zure borondatea egiteko!".

CANTO DE ENTRADA

SALUDO DEL PRESIDENTE

El Señor, que viene a salvarnos, esté con todos vosotros.

GESTO DE LA CORONA Y ACTO PENITENCIAL

Al encender hoy la cuarta vela, pensamos en María, la Madre. Nadie esperó con más ansia y amor. Nosotros queremos prepararnos así: En el amor y la justicia. El amor cristiano al prójimo y la justicia no se pueden separar. Con ellos podemos hacer entre todos una sociedad más humana y más humanizadora. ¡Ven, Señor Jesús!

Se enciende el cuarto cirio y, a continuación, se dice:

1. Luz del mundo, que vienes a iluminar a quienes viven en tinieblas:
Señor, ten piedad.
2. Guía de la humanidad, que vienes a conducir a tu pueblo por las sendas de la verdad y de la justicia:
Cristo, ten piedad.
3. Fuente de vida, que vienes a curar las heridas de nuestra debilidad:
Señor, ten piedad.

MONICIÓN a la 1ª LECTURA (MIQ 5,1-4ª)

En la primera lectura, el profeta Miqueas, siglos antes de que suceda, anuncia el nacimiento del Mesías. Nacerá en una pequeña y desconocida aldea llamada Belén. Congregará a todos los pueblos, les concederá la paz. Y es que la fuerza de Dios se manifiesta en lo pequeño, en lo sencillo.

MONICIÓN a la 2ª LECTURA (HEB 10,5-10)

En la segunda lectura, según el autor de la Carta a los Hebreos, Cristo, único y verdadero Sumo Sacerdote, es el modelo que tenemos que seguir, si queremos ser cristianos. Todos deberíamos ser capaces de poder decir como Él: "¡Aquí estoy para hacer tu voluntad!".



EBANJELIO (LK 1, 39-45)

JAUNGOIKOAREN HERRIAREN OTOITZA

Jaunaren etorreraren zain, bat egin daigun otoitzean, Berak gizadi osoaren bidea barritu daian.

1. Gure kristau alkarteen alde. Itxaropentsu eta alai, pertsona guztientzako, eta batez be ahulentzako aukera zuzenak sortzeko bideak aurkitu daiezan.

Eskatu deiogun Jaunari.

2. Behartsuen alde, jaiak behartasunean eta bakartadean biziko dabenen alde, itxaropen barik bizi diranen eta pandemiaren eraginak jasaten dabezanen alde. Aurkitu daiezala besteengan alkartasun, ulermen eta laguntasunezko keinuak. Eskatu deiogun Jaunari.

3. Caritasen alde eta pobretasunaren aurka eta zuzentasunaren alde jarduten dabenen alde. Amets egiteak etorkizun barria eta aldatzeko aukera emoten deuskula, amets egiteak danontzako bizimodu desbardina eta hobea izateko itxaropena sustatzen eta hedatzen laguntzen deuskula ikusarazo deiguen.

Eskatu deiogun Jaunari.

4. Gu guztion alde. Gabonak kristau senez eta senide bizikidetasunean bizi daiguzan bizi-lekurik ez dabenei lagundu deiogun eta eskubide hori defendatu daigun gizarte bardin eta zuzenagoa egiteko ahaleginean.

Eskatu deiogun Jaunari.

Jaungoiko Jauna, zure agintzariak beteten dozuzana, entzun zure herriaren otoitzak eta zabaldu gure bihotzak itxaropenera Salbatzailearen etorreraren zain gagozala. Errege bizi da-eta gizaldi eta gizaldietan.

OHARRA DIRUA BATU AURRETIK

Gaur batu daiten dirua Eleizbarrutiko Caritasentzat izango da. Horri esker, batek baino gehiagok lekua aurkituko dau ostatuan. Eskerrik asko esku-zabaltasunez jokatzegaitik.

EVANGELIO (LC 1, 39-45)

ORACIÓN UNIVERSAL

En la espera de la venida del Señor, unámonos en la oración, para que Él renueve el camino de la humanidad entera.

1. Por nuestras comunidades cristianas, para que sean esperanzadas y alegres y buscadoras de horizontes nuevos que nos permitan crear oportunidades equitativas y justas para todas las personas, especialmente las más vulnerables.

Roguemos al Señor.

2. Por las personas pobres y quienes vivirán estas fiestas en la soledad y la tristeza, por quienes viven con la esperanza vaciada de horizonte, por quienes padecen los efectos de la pandemia, para que encuentren en los demás gestos de solidaridad, comprensión y ayuda.

Roguemos al Señor.

3. Por Cáritas y quienes trabajan contra la pobreza y a favor de la justicia, para que nos hagan comprender que soñar nos abre caminos de futuro, de posibilidad y transformación; que soñar nos permite crear, anhelar y proyectar la esperanza de una vida distinta y mejor para todas las personas.

Roguemos al Señor.

4. Por todos nosotros, para que vivamos esta próxima Navidad con sentido cristiano y en convivencia fraternal, acompañemos a las personas que no tienen vivienda digna y defendamos ese derecho fundamental para ser luz en el camino hacia una sociedad más justa y equitativa.

Roguemos al Señor.

Señor, Dios nuestro, que cumples siempre con fidelidad tus promesas, escucha las oraciones de tu pueblo y abre nuestros corazones a la esperanza mientras esperamos la venida del Salvador. Él, que vive y reina por los siglos de los siglos.

MOTIVACIÓN A LA COLECTA

La colecta de hoy se destina a Cáritas Diocesana. Con ella se hará posible que haya quienes encontrarán sitio en la posada. Gracias por vuestra generosidad al compartir.



JAUNARTZE OSTEKO ISILTASUNEAN

Maria, poz eta itxaropenaren emakumea Gabonen atarian.

Mariak oraindik Isabel bere amaren sabelean dan

Joan be pozez beteten dau. Isabel, bere aldetik, pozez eta Espirituaz beteta, Maria bedeinkatu egiten dau bere kantikaz. Maria, Jesus sabelean dauan emakumea, nahitaez solidario dana apal eta gosetiakaz, danak itxaropenaz kutsatzen dituana.

Horixe dogu, bategitearen Abendu aldian, bere antzera “bizkor ibilteko” era.

Geure erritmora, edonora joanda be, errukiz, banatuz, zuzentasunaren alde konprometituz eta, aldi berean, poza eta itxaropena helarazoz, jokatut behar dogu.

EN EL SILENCIO DESPUÉS DE LA COMUNIÓN

María, mujer de la alegría y de la esperanza a las puertas de la Navidad.

María contagia de alegría al mismísimo Juan, todavía en el vientre de su madre Isabel que, contagiada también ella de alegría y de Espíritu, se pone a cantar bendiciones a María, la mujer que, con Jesús en el vientre, no puede dejar de ser solidaria con los humildes y los hambrientos, contagiándole a todo el mundo la esperanza.

Ese es nuestro modo también de “caminar deprimida”, como ella, en el Adviento del encuentro.

A nuestro paso, vayamos por donde vayamos, lo nuestro es la misericordia, el compartir, el compromiso por la justicia, y también comunicar alegría y esperanza.

